

Lankidetz Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

Deialdia egin duena	Donostiako Udala
Convoca	Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua	2017ko apirilaren 6an / 6 de abril de 2017
Fecha, lugar y hora	Ghandi Aretoa. Aiete Jauregia / Sala Ghandi. Palacio de Aiete 16:00etan / A las 16:00 horas

GAI ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

1. Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero. (ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2016-12-15)
Osoko bilkurak aurrera eramateko ordutegien inguruko galdaketaren emaitzak.
2. Prozesu parte-hartzailearen bidez eginiko Garapenerako eta Lankidetzarako Hezkuntzako III. Planaren onarpena. (Ikusi erantsitako dokumentua)
3. Lan talde desberdinak martxan jartzeko aukera:
 - Aurrekontuak.
 - 2018rako diru-laguntza oinarriak.
 - Larrialdiak.
4. 2017 diru laguntza deialdiaren egoeraren berri ematea.
5. Udal Lankidetz sailaren 2016 urteko memoriaren aurkezpena
6. Azken informazioak:
 - Gizarte Kontseiluaren azken saioak.
 - Klima estrategia 2050 foroa.
7. Galderak eta zalantzak.
8. Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.
1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior. (ver el archivo adjuntos del borrador del acta de 15-12-2016)
2. Resultados del sondeo sobre los horarios a realizar las sesiones plenarias.
3. Aprobación del III. Plan de Cooperación y Educación para el Desarrollo realizado tras el proceso participativo. (ver el documento adjunto)
4. Posible puesta en marcha de distintos grupos de trabajo:
 - Presupuestos.
 - Bases de subvenciones 2018.
 - Emergencia.
5. Informar sobre la situación de la convocatoria de subvenciones 2017.
6. Presentación de la memoria del año 2016 del departamento de Cooperación municipal.
7. Informaciones varias:
 - últimas sesiones del Consejo Social
 - Foro clima estrategia 2050
8. Ruegos y preguntas.
9. Información sobre próximas actividades.



BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	PSE-EE - Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria PSE-EE - Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	<ul style="list-style-type: none">•EAJ-PNV•EH-BILDU•IRABAZI
ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL	<ul style="list-style-type: none">•ALBOAN•BAKEA ETA ELKARTASUNA•CALCUTA ONDOAN•EMAUS•HAURRALDE FUNDAZIOA•INTERED•MEDICUS MUNDI GIPUZKOA•MUGARIK GABE•MUGEN GAINETIK•MUNDUBAT•PROYDE-PROEGA•SETEM•EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA•TAU FUNDAZIOA•UNICEF•Pertsona fisikoa
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	<ul style="list-style-type: none">•ADSIS•SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA

UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetzako teknikaria Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social Lankidetzako Ataleko burua Jefa del negociado de Cooperación
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	20 Lankidetzako Kontseilu sektorialeko kideak, jarraian adierazten direnez gain: udalek 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1). <ul style="list-style-type: none">•Emakumezkoak / Mujeres = 11•Gizonezkoak / Hombres = 9 <p>20 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre).</p>
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Lankidetzako - Cooperación: Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65, 1./ 943481471 / lankidetzako@donostia.eus

SAIOAREN BILAKAERA: DESARROLLO DE LA SESIÓN:

<p>Saioaren hasieran, Lankidetzako zinegotziak azaldu du zergatik egin behar izan duten bilera Aieteko Gandhi aretoan, udaletxeko batzar aretoan egin beharrean.</p>	<p>La sesión comienza con una explicación de la concejala de cooperación respecto al cambio de lugar, ya que se ha tenido que cambiar el salón de plenos del Ayuntamiento por la sala Gandhi de Aiete.</p>
<p>1.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat jotz gero.</p> <p>Aurreko akta onartu dute, EH Bilduko ordezkariak proposatutako aldaketa bat sartuta: 5. puntuan (Radar mugikorraren zigorren bidez bildutako diruen erabilerari buruzkoa): EH-Bilduko ordezkariak ere horrelako erabakiak Lankidetzako Kontseilutik pasa beharko liratekeela dio.</p>	<p>1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.</p> <p>Se aprueba el acta anterior, incorporándose una modificación propuesta por la representante de EH Bildu: Respecto al punto nº 5, relativo al destino del dinero recaudado por el radar móvil, la representante de EH Bildu manifiesta que este tipo de decisiones también deberían someterse a la consideración del Consejo de Cooperación.</p>
<p>2.- Osoko bilkurak aurrera eramateko ordutegieng inguruko galdaketaren emaitzak.</p> <p>Berriz bidali dute galde sorta, aukeran hainbat ordutegi ematen dituen. Oraingoan erantzuna ona izan da, kontseilu-kideen % 60k baino gehiagok erantzun baitute. Boto gehien (17 puntu) goizeko 11:00etako aukerak bildu ditu; baina hurrengo aukera, arratsaldeko 16:00etako (14,5 puntu), denek dute posible. Beraz, batzorde iraunkorrean erabaki dute bigarren aukera hori hautatzea, ez baitio inori kalterik egiten.</p>	<p>2.- Resultados del sondeo sobre los horarios a realizar las sesiones plenarios.</p> <p>Se volvió a enviar el cuestionario, en el que se ofrecían distintas opciones de horario. Esta vez sí ha habido una buena respuesta, ya que más del 60% de las integrantes del Consejo han contestado. La opción más votada fue las 11:00 de la mañana con 17 puntos; pero en la siguiente opción (16:00 de la tarde, 14,5 puntos) no había nadie que no pudiera asistir. Por lo tanto, en la comisión permanente se ha acordado elegir esta segunda opción, que no perjudica a nadie.</p>
<p>3.- Prozesu parte-hartzailearen bidez eginiko Garapenerako eta Lankidetzarako Hezkuntzako III. Planaren onarpena. (Ikusi erantsitako dokumentua)</p> <p>Lankidetzako teknikariak plana egiteko prozesua azaldu du: irailaren bukaeran, lehenengo zirriborroa bidali zuten eta ekarpenak egiteko epe bat eman zuten. PPK, Irabazik, EH Bilduk, Unicefek eta GGKEen Koordinakundeak (ekarpen kolektiboak) bidali zituzten ekarpenak. Kontseiluan eraturako lantaldea hirutan bildu da, eta ekarpen guztiak eta planaren testu osoa aztertu ditu. Honako hauek izan dira parte hartzaileak: Alboan, Mugen Gainetik, Unicef, Medicus Mundi, Bakea eta Elkartasuna,</p>	<p>3.- Aprobación del III. Plan de Cooperación y Educación para el Desarrollo realizado tras el proceso participativo. (ver el documento adjunto)</p> <p>La técnica de cooperación explica el proceso de elaboración del plan: a finales de septiembre se envió el primer borrador, dejando un plazo para hacer aportaciones. PP, Irabazi, EH Bildu, Unicef y la Coordinadora de ONGD (aportación colectiva) remitieron sus propuestas. El grupo de trabajo constituido en el Consejo se reunió en 3 ocasiones, analizando cada una de las aportaciones y el texto íntegro del Plan. En el grupo participaron Alboan, Mugen Gainetik, Unicef, Medicus Mundi,</p>



Mundubat, Setem, Haurralde, Derandain, Emaus, ACP, TAU, Mugarik Gabe, Mugarik Gabeko Ekonomia-ariak, Calcuta Ondoan, GGKEen Koordinakundea, EH-Bildu eta Irabazi, bai eta Lankidetzako zinegotzia eta taldea ere. Azken dokumentuaren gainean ere egin dituzte ekarpenak, eta, azkenik, kontseiluko kide guztiei bidali zaie dokumentu adostua.

Lankidetzako zinegotziak jakinarazi du azken urtean EAJ udal taldearen hiru ekarpen jaso dituztela eta eskatu dute horiek ere aktan jasotzeko. EAJko ordezkariak azaldu du hiru puntu direla: planean sartzea "proiektua garatzen ari den herrialdearen pobrezia adierazleak", halaxe jasota baitaude hauteskunde programan; garrantzi handiagoa ematea giza laguntzari eta larrialdietarako laguntzari; eta jasota geratzea % 0,7a Euskal Fondoaren irizpidearen arabera kalkulatu delako (diru sarreren 5 kapitulu).

Eztabaida sortu da egokia ote den pobrezia mailaren adierazleren bat sartzea planean. Hainbat GGKEk azaldu dute aldaketa garrantzitsuak direla eta behar zen garaian jaso behar zituztela. Ez dira ados agertu aldaketa horiekin, hainbat arrazoiengatik: ez dauka zentzurik lehentasun geografikoak jartzea, Donostia oso eragile txikia baita; Euskal Herriko GGKEak ez daude prestatuta giza ekintzarako, Deustuko Unibertsitateak berriki egindako azterlan batek ondo erakusten duenez; ez daude ados % 0,7a BPGaren arabera izatearekin (udaletan, horren baliokiderik hurbilena guztizko aurrekontu finkatua litzateke).

Lankidetzako zinegotziak eskatu du aktan jasotzeko EAJren ekarpenak, Kontseiluak plana onartuz. Larrialdietarako laguntzari dagokionez, jakinarazi du Unicefentzako 25.000 euroren laguntza eskaera bat onartu dutela, Kongoko Errepublikako goseteari aurre egiteko.

Hurrengo puntuari heldu aurretik, Haurraldeko, Bakea eta Elkartasuna elkarteko, GGKEen Koordinakundeko eta Irabazi taldeko ordezkariak eskerrak eman dituzte egin den prozesuagatik, bai eta Udalak ekarpenak aintzat hartzeko izan duen jarrera irekiagatik ere. Lankidetzako zinegotziak ere eskerrak eman dizkie lantaldean parte hartu dutenei,

Paz y Solidaridad, Mundubat, Setem, Haurralde, Derandain, Emaus, ACP, TAU, Mugarik Gabe, Econosmistas Sin Fronteras, Calcuta Ondoan, la Coordinadora de ONGD, EH-Bildu e Irabazi, además de la concejala y equipo de cooperación. Al documento final, se volvieron a hacer aportaciones, y por último se ha enviado a todas las integrantes del Consejo el documento consensuado.

La concejala de cooperación informa de que en el último momento se han recibido del grupo municipal PNV 3 aportaciones, y se solicita que consten en acta. El representante del PNV explica que se trata de 3 puntos: que se incorporen al plan "indicadores de pobreza del país en que se desarrolla el proyecto", ya que así consta en su programa electoral; que se de más relevancia a la ayuda humanitaria y de emergencia; y que conste que el cálculo del 0,7% se hará según el criterio de Euskal Fonda (5 capítulos de ingresos).

Se abre un debate sobre la pertinencia de incluir algún tipo de indicador de nivel de pobreza en el Plan. Varias ONGD explican que son cambios de calado, que habría que haber recibido en su momento, y se manifiestan en desacuerdo con ellos por diversas razones: la falta de sentido de marcar prioridades geográficas en un agente pequeño como Donostia, la falta de preparación de las ONGD vascas respecto a la acción humanitaria, como pone de manifiesto el reciente estudio de la universidad de Deusto, o el hecho de que la reivindicación del 0,7% sea del PBI, cuyo equivalente más cercano en los Ayuntamientos sería el presupuesto total consolidado.

La concejala de cooperación pide que se recojan en acta las aportaciones del PNV, quedando aprobado el plan por el Consejo. Respecto a la ayuda de emergencia, da a conocer que se ha aceptado una petición de 25.000 € a Unicef para la hambruna declarada en República del Congo.

Antes de pasar al siguiente punto, los representantes de Haurralde, Paz y Solidaridad, la Coordinadora de ONGD e Irabazi agradecen el proceso llevado a cabo, y la apertura del Ayuntamiento a tomar en cuenta las aportaciones realizadas. La concejala de cooperación, a su vez, agradece

<p>egin duten ahaleginarengatik.</p>	<p>el esfuerzo realizado a quienes han tomado parte en el grupo de trabajo.</p>
<p>4.- Lan talde desberdinak martxan jartzeko aukera:</p> <p>Aurreko bileretan esan zuten komeni zela hiru lantalde sortzea: aurrekontuena, larrialdietarako laguntzena eta diru laguntzen oinarriak eguneratzekoa. Epe eta aldi egokienak zein diren eztabaidatu dute, eta erabaki dute Aste Santu ondoren mezu elektronikoko bat bidaltzea, lantaldeak nola osatuko diren ikusteko eta horietako bakoitza modu autonomoan antolatzen joateko.</p>	<p>4.- Posible puesta en marcha de distintos grupos de trabajo:</p> <p>En reuniones anteriores, se planteó la conveniencia de crear 3 grupos de trabajo: de presupuestos, de ayuda de emergencia, y de actualización de bases de subvenciones. Se debate en torno a los plazos y tiempos más convenientes, y se acuerda enviar un e-mail después de Semana Santa para ver quiénes formarían parte de los grupos, y que cada uno de éstos se vaya organizando autónomamente.</p>
<p>5.- 2017 diru laguntza deialdiaren egoeraren berri ematea.</p> <p>Errepaso txiki bat egin dute: otsailaren 1ean argitaratu zuten deialdia, GAO n; martxoan, proiektuak jasotzen joan dira baina zailtasunak izan dituzte modu telematikoan aurkezteko; hori dela eta, arazo horiek konpontzen saiatzen ari dira. Guztira 48 proiektu aurkeztu dituzte; horietatik 29 lankidetzaren alorrekoak dira, eta 17, garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioaren alorrekoak. Antzeko kopurua izan da aurreko urteetan ere.</p> <p>Erabaki dute zuzenketa eskaerak Aste Santua amaitu ondoren bidaltzea, oporrekin bat ez egiteko epeak.</p>	<p>5.- Informar sobre la situación de la convocatoria de subvenciones 2017.</p> <p>Se hace un breve repaso: el 1 de febrero se publicó en el BOG la convocatoria, a lo largo del mes de marzo se han ido recibiendo los proyectos, y ha habido dificultades con la presentación telemática, que se están intentando solucionar. Se han presentado un total de 48 proyectos, de los cuales 29 son de cooperación, y 17 de EpTS, un número similar al de años anteriores.</p> <p>Se acuerda que se enviarán los requerimientos de subsanación después de Semana Santa, para que el plazo no coincida con las vacaciones.</p>
<p>6.- Udal Lankidetzta sailaren 2016 urteko memoriaren aurkezpena</p> <p>Aurreko urteko memoria aurkeztu dute. Jadanik, atalaren webgunean dago jarrita: http://www.donostia.eus/lankidetzta.</p>	<p>6.- Presentación de la memoria del año 2016 del departamento de Cooperación municipal.</p> <p>Se presenta la memoria del año anterior, que está ya subida a la página web del departamento http://www.donostia.eus/lankidetzta</p>
<p>7.- Azken informazioak: - Gizarte Kontseiluaren azken saioak.</p> <p>Calcuta Ondoan-eko ordezkaria, elkarteko lehendakariorde gisa, Gizarte Kontseiluko kidea da eta plan estrategikoa eguneratzeko</p>	<p>7.- Informaciones varias: - Últimas sesiones del Consejo Social</p> <p>El representante de Calcuta Ondoan, como vicepresidente, es parte del Consejo Social, y participa también en la comisión de</p>



<p>batzordean ere hartzen du parte. Azaldu du lehen zirriborroa bidali dutela, haren gainean ekarpenak egiteko. GGKEen Koordinakundearen laguntzarekin, ekarpen hauek egin ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ikuspegiari dagokionez, Hiri "solidarioa kanpora zein barrura begira" definizioa eranstea. --> onartu egin da.• "Pertsonak eta balioak" ardatzari dagokionez: hiriaren ezaugarria izan den elkartasunean indarra jartzen duten politikak bultzatzea, pertsona guztien giza eskubideen defentsan, bere kokapen geografikoaz edo jatorriaz gain, pertsonen dignitatearen defentsarekin koherenteak diren politiketan oinarrituz, eta era berean gure kontzientzia kritikoa pizten dutenak eta alternatibak bultzatzera animatzen gaituztenak, giza eraikuntza eredu zuzenago, ekitatiboagoa eta solidarioagoa bultzatzen dituzten alternatibak.• "Ekintzarako tresnak" atalari dagokionez, udal kontseiluak baliatzea tresna gisa. <p>Ez dauka oso argi hirugarrena onartu ote duten; badirudi besteak baietz, baina ikusteko dago azken dokumentua nola gelditzen den.</p>	<p>actualización del plan estratégico. Explica que se ha enviado un primer borrador al que hacer aportaciones. Con ayuda de la Coordinadora de ONGD, ha realizado las siguientes aportaciones:</p> <ul style="list-style-type: none">• En la visión: Añadir a la definición de ciudad "solidaria hacia dentro y hacia fuera" --> se ha incorporado.• En el eje "personas y valores": Impulsar políticas que hagan hincapié en la solidaridad que nos ha caracterizado como ciudad, en la defensa de los derechos humanos de todas las personas, independientemente de su ubicación geográfica o procedencia, basándose en políticas coherentes con la defensa de la dignidad de las personas, al tiempo que despierten nuestras conciencias críticas y nos animen a potenciar alternativas que aboguen por un modelo de construcción social más justo equitativo y solidario.• En "herramientas para la acción": que puedan usarse como herramienta los consejos municipales. <p>No tiene muy claro si la tercera se ha aceptado, parece que las otras sí, aunque está por ver cómo quedará el documento final.</p>
<p>- Klima estrategia 2050 foroa.</p> <p>Inor ez da joan kontseiluarteko bilerara. Erabaki dute atalak akta eskatuko diola Ingurumen Zuzendaritzari, eta dokumentu hori, gero, kontseiluko kide diren entitateei bidaliko diela.</p>	<p>- Foro clima estrategia 2050</p> <p>Nadie de las presentes acudió a la reunión inter-consejos. Se acuerda que el departamento pedirá a Medio Ambiente el acta y la reenviará a las entidades integrantes del Consejo.</p>
<p>8.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.</p> <p>Laster hasiko diren jardueri buruzko informazioa eman dute.</p>	<p>8.- Información sobre próximas actividades.</p> <p>Se comparte información sobre las actividades que darán comienzo próximamente.</p>



➤ Lankidetzta
Cooperación